

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure helburua kutsadura murriztuz eta segurtasuna handituz autoak saltzea da, beraz, gure xede publikoa helduak izango dira, gidatu dezaketelako. Hala ere, ez dugu aurreikusten pertsona oso zaharrek gure produktua erostea, azken finean teknologia berri asko integratuko dizkiogulako, eta seguruenik ez litzateke produktu egokiena izango haientzat. Horregatik gure bezeroak gida baimena duten helduak izango direla aurreikusten dugu.

Gure bezero gazteenek autoaren teknologiari (bideo-jokoak eta pertsonalizatu daitezkeen led argiak, besteak beste) etekin handiagoa aterako diote zaharrenek baino, eta hori izan daiteke erakargarriena haientzat. Helduenek, berriz, kutsaduraren murrizketa baloratu dezakete gehiago, eta energiaren erabilpen arduratsua egitea, ingurumenarekin kontzientziatuagoak daudelako. Hala ere, gure bezero guztiek komunean dutena da segurtasuna baloratzen dutela, eta errepidean gidatzen ari diren bitartean ahalik eta seguruen sentitu nahi dutela. Hori gure produktua hautatzeko aspektu klabea da gure bezeroentzat.

Gure bezeroen ezaugarriak oso desberdinak izan daitezke, baina orokorrean hauek dira nagusienak: teknologia berriak gustuko dituzte, ingurumena zaindu nahi dute eta kalitatezko garraio bide seguru bat nahi dute, primerako materialekin eraikia.

Beste aldetik, gurekin kolaboratuko duten enpresak bi eratakoak izango dira: teknologia berriak sortu eta bultzatzen dituztenak eta ingurumenarekiko kontzientzia sustatzen dutenak, eta ingurumena hobetu nahi dutenak kutsadura murriztuz eta energia berriztagarriak erabiliz. Gainera, gure produktua oso interesgarria izan daiteke autoen erabilera handia egiten duten enpresa eta langileentzako, taxista eta garraio enpresentzat, hala nola; kutsadura ikaragarri murriztuko litzatekeelako eta gidarien segurtasuna gehiago bermatuko litzatekeelako.



gidarien segurtasuna gehiago bermatuko litzatekeelako.